

LEHIAKETA

ETA ZUK?

ZERTARA JOKATZEN DUZU?

12 eta 18 urte bitarteko adina badaukazu animatu parte hartzera

Lanak:
Marrazkiak
Komikiak
Bideoak
Argazkiak
Ipuinak



Antolatzailea:



ASOCIACIÓN ALAVESA
DE JUGADORES EN
REHABILITACIÓN
ERREABILITAZIOAN DIREN
ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA

Laguntzailea:

Vitoria-Gasteizko Udala



Osasunerako eta Kontsumoko Udala Sali Herri Osasun Artea

LEHIAKETAREN OINARRIAK

Errehabilitatzen ari diren Jokalarien Arabako Elkarteak (ASAJER), Gasteizko Udaleko Osasun eta Kontsumo Sailaren (DEMSAC) lankidetzarekin, "ETA ZUK? ZERTARA JOKATZEN DUZU?" LEHIAKETA deitu du.

PARTAIDEAK

1. Lehiaketa honetan 12 eta 18 urte bitarteko neska-mutilek parte hartu ahal izango dute, Gasteizko Udalerriari erroldaturik egotea beharrezkoa ez delarik izango.
2. Bakarka edo taldean parte har daiteke (4 pertsona gehienez).

GAIAK

1. Lehiaketa honetako gai nagusia jokoaren mendekotasunetik prebentzioa da (bai ausazko jokoei eta bai bideo-jokoei dagokionez).
2. Helburu nagusia, 12 eta 18 urte bitarteko gaztetxoek duten jolasteko moduaren berri ematea eta jokoari dagozkion balore batzuen inguruan gogoeta egitea da (gozamina, entretenimendua, lehiakortasuna, berdintasuneko harremana, ikaskuntza...).

LANAK

1. Partaide bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal du (bakarka edo taldean).
2. Lanak originalak eta argitaragabeak izan beharko dute. Idatzizko edukirik egongo balitz, gazteleraz nahiz euskaraz eman daiteke.
3. Hurrengo modalitateetan baneraturako lanak aurkez daitezke: marrazkiak, komikiak, bideoak, argazkiak, ipuinak.
4. Lana egiterakoan erabili beharreko teknikari dagokionez, egileak erabakiko du zein teknika erabili. Lana zuri-beltzean nahiz kolore biziz egin daiteke.
5. Honakoak dira modalitate bakoitzean aintzat hartu beharreko formatoak:

MARRAZKIAK: Paperean edo kartoi mehean aurkeztu ahal izango dira, DIN A4 tamainan (21x29,7). Materialei dagokionez, errotulagailuak, arkatzak, tenperak edo akuarelak erabiliko dira.

KOMIKIAK: DIA A4 euskarrian aurkeztuko dira, errotulaturik eta orrialdeak zenbatuta. Gubxienez orrialde bat izan beharko dute eta gehienez 3 orrialde, alde bakarrean.

BIDEOAK: Gehienez 3 minutuko iraupena duten publizitate-spotak edo gehienez 15 minutuko iraupena duten bideo-dokumentalak (tituluak eta kredituak barne) aurkeztu ahal izango dira.

ARGAZKIAK: 13x18ko tamainan aurkeztuko dira. Euskarri digitala bada, jpg formatuan aurkeztuko dira.

IPUINAK: Gehienezko luzera 3 orrialdetako izango da, DIN A4/ Times New Roman (12 hizki-tamaina) formatuan.

LEHIAKETAREN OINARRIAK

6. Lanarekin batera gutunazal itxi bat aurkeztu beharko da. Azken honen barnean, egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa adierazi beharko dira, eta taldean egin bada, taldea osatzen duten kide guztien datuak baneratu beharko dira. Gutunazalaren kanpoaldean "ETA ZUK? ZERTARA JOKATZEN DUZU?" LEHIAKETA idatzi beharko da.

LANEN AURKEZPENEA

Lanak aurkezteko epea, irailaren 30etik azaroaren 28ra artekoa izango da, ASAJERREKO egoitzan aurkeztu beharko direlarik: General Alava Kalea 25-1esk, Gasteiz. Ordutegia 10etatik 12etara izango da goizez, eta 5etatik 7etara arratsaldean (asteleheneetik ostiralera).

SARIAK

1. Sariak 2 kategorian izango dituzte: 12-15 urte eta 16-18 urte. Kategorian bakoitzean lehen saria eta 2 accessit banatuko dira. Parte hartzaile guztiei diploma bana emango zaie.

12-15 urte- Lehen saria: 350€ko Opari-txartela, musika, liburu edo eskola-materialarekin aldatzeko. 2 Opari-txartel accessit, 150€koa bakoitza.
16-18 urte- Lehen saria: 400€ko Opari-txartela, material elektronikoa aldatzeko. 2 Opari-txartel accessit, 200€koa bakoitza.

2. Epaimahairen arabera, sariak jasotzeko adina meritu duten lanik aurkezten ez bada, sariak mortutzat jo daitezke.

EPAIMAHAIA

1. Lehiaketaren epaimahaia honakoak osatuko dute:
 - Errehabilitatzen ari diren Jokalarien Arabako Elkarte presidentea (ASAJER).
 - Gasteizko Udaleko Gazteria Saileko ordezkari bat.
 - Gasteizko Udaleko Osasun eta Kontsumo Saileko ordezkari bat.

JABETZA

1. Saritutako lanak Errehabilitatzen ari diren Jokalarien Arabako Elkarte (ASAJER) jabetzara pasako dira, eta honek egiten dituen kanpainetan, haiek erabiltzeko, kopiatzeko eta hedatzeko eskubideak gordeko ditu, egilearen aipamena eginez.
2. Lan ez sarituak, ASAJER egoitzan jaso ahal izango dira, lehiaketa amaitu eta hilabeteko epearen barnean.

Lehiaketa honetan parte hartzen duen orok, oinarri guztiak onartzen dituela eta epaimahairen erabakia nahiz hemen jasotzen ez den edozein ezustekoaren aurrean, epaimahaik hartutako erabakia onartzen duela ulertzen da.